



besaldi

Enplegu eta inklusio
politiken ebaluazio organoa
Órgano de evaluación de las
políticas de empleo e inclusión



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EKONOMIA, LAN ETA
ENPLEGU SAILA
DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA,
TRABAJO Y EMPLEO

Enplegu- eta inklusio-politiken ebaluazio- organoaren misioa, ikuspegia, balioak eta marka.

Besaldiren misioa

Besaldiren misioa da, Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoek enplegu- eta inklusio-politiken ebaluazio independentea eraginkortasunez instituzionalizatzeko duten tresna denez, sistematikoki laguntzea gobernuaren diagnostikoak, erabakiak eta jarduerak hobeto ezagutzen eta hobetzen, pertsona guztiek bi herritartasun eskubide erabat balia ditzaten bermatzeko, babesteko eta sustatzeko: enplegu ona izateko eskubidea eta gizarte-inklusiorako eskubidea.

Besaldiren ikuspegia

Besaldiren ikuspegia da, enplegu- eta inklusio-politiken ebaluazio-organoa izanik, 2029an EAEko enplegu- eta inklusio-politiken alderdi garrantzitsuenen kalitatearen etengabeko ebaluazio independentea egiten jarraitzea, funtzionamendu operatibo, tekniko, administratibo eta estrategiko bikainaren bidez eta alde guztientzako zerbitzu- eta lankidetzaharreman eta -konpromiso egonkor, efiziente eta gogobetegarriak izanez eragile interesdun nagusiekin (governukoak, akademikoak, profesionalak, instituzionalak, sozialak, zibilak eta hiritarrak), bai eta erreferente baliotsu izaten jarraitzea ere Euskal Autonomia Erkidegoaren barruko eta kanpoko enplegu- eta inklusio-politiken ebaluazioaren arloko praktika- eta ezagutza-sare eta -komunitateetan.

Besaldiren balioak

1.

PERTSONAK.

Gizarte-inklusioko eta enpleguko politika publikoen hartzaileak (hau da, pertsona guztiak, beharren arabera) beti egongo dira Besaldiren zereginaren erdigunean: haien bizitza, duintasuna, eskubideak, garapena eta ongizatea dira gure neurri-unitatea.

2.

INSTITUZIONALIZAZIOA.

Besaldi sektore publikoaren parte da, eta herritar guztien zerbitzura dagoen Estatu bat eratzen eta eraikitzen du; enpleguko eta gizarte-inklusioko politika publikoen ebaluazioa botere eta administrazio publikoen egituretan eta funtzionamenduan integratuta egoteko modurik onena bilatzen du.



besaldi

3.

BIKAINTRASUNA.

Gure prozesu eta produktu guztiei dagokienez, ezagutza-komunitateek ezarritako estandar epistemologiko eta metodologiko onenak lortu nahi ditugu. Aktiboki bilatzen dugu topatu ditzakegun pertsona eta erakunde aditu onenen lankidetzara eta eragina izatea.

4.

ENTZUTEA.

Besaldik entzun, entzun eta entzun egiten du, hitz egin aurretik. Arretaz entzuten du eragileek zer galdetzen duten, berak galderak egin aurretik. Arretaz entzuten du beste eragileek zer erantzuten duten, berak erantzun aurretik.

5.

AGINTEA.

Instituzionalizazioaren, bikaintasunaren eta entzutearen ikuspegitik ulertzen eta onartzen du organo honek agintea zer den, eta halaxe gauzatu nahi du, elkarrizketa inklusiboaren, deliberazio demokratikoaren eta bere taldean bertan hasten den eztabaida zorrotzaren esparruan.

6.

INDEPENDENTZIA.

Gure hautu, erabaki, balorazio, iritzi eta gomendioek ez dute gure irizpideen aurkako kanpoko ezein agenteren eraginik jasoko, eta ez dituzte hutsalduko, desbideratuko, ezkutatuko edo aldatuko.

7.

EFIZIENTZIA.

Gure produktuak, emaitzak eta eragina ahalik eta baliabide gutxien kontsumituz lortu nahi ditugu. Horregatik, abiaburuan, Besaldi organo neurritsu, soil eta balioaniztuna da. Lehentasuna ematen diegu legezko betebeharrei, baina ez gara horietan geratzen. Balio gutxi eransten duten zeregin eta solasaldi burokratizatueta emandako denbora minimizatzen saiatzen gara.

8.

ELKARLANA.

Beste eragile batzuekin ahalik eta lankidetzaharreman gehien izatea bilatu eta sustatuko dugu eta horri eutsiko diogu, ahalik eta balio handiena eskainiz eta jasoz. Besaldik, neurri handi batean, arrakasta du lankidetzaprozesuak bultzatzeko eta ondorio biderkatzaileak eragiteko gaitasuna duelako.

9.

GOBERNANTZA.

Besaldi datuen gobernantzaren, adimen kolektiboaren, kontuak ematearen eta gobernu irekiaren ekosistema zabal baten parte da, eta ekosistema horren eraikitzailetzat du bere burua. Ekosistema horren funtzionamendu ona ezinbestekoa da demokrazia legitimatzeko, hari eusteko eta hartan sakontzeko.

10.

GARDENTASUNA.

Besaldi bere prozesuak eta produktuak ahalik eta ikusgarrienak, eskuragarrienak eta maneigarrienak izaten saiatuko da. Bere gain hartzen du herritarrek enplegu-eta gizarte-inklusioko politikak uler ditzaten eta haiekiko konpromisoa har dezaten lortzeko erantzukizunaren zati handi bat.

Eusko Jaurlaritzaren enplegu- eta inklusio-politiken ebaluazio-organok izendapen labur bat (marka bat) izateko beharra sentitu du, egunero erabiltzeko izendapen osoa baino erabilgarriagoa eta efikazagoa izango dena. Besaldi Euskal Herrian betidanik erabili izan den neurri-unitate bat da, bai lan-jardueretan, bai gizarte-bizitzan, eta gizakia hartzen du erreferentziatzat (zehazki, gizakiaren besoak). Sinbolikoki, pertsona ardatz duen enplegu- eta inklusio-politiken ebaluaziora garamatza, zeina humanista eta humanizatzailea, errespetuzkoa eta giza eskalaren bilatzailea baita.